

Merkataritzako sektoreko salmentak %1,6 jaitsi dira 2023ko urte osoan Euskal AEn


2023ko laugarren hiruhilekoan, salmentek %1,8 egin dute behera, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean

2023. urte osoan, Merkataritzako salmentak %1,6 jaitsi dira prezio finkoetan, 2022. urtearen aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Urte osoan bilakaera positiboa izan da bai *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan* (salmentak %5,9 hazi dira) bai *Txikizkako merkataritzan* (urteko hazkundea %0,9 izan da). *Handizkako merkataritzaren* sektorean, aldiz, 2023an metatutako salmentak 2022an ikusitakoak baino %4,7 txikiagoak izan dira.

Merkataritzako sektoreko salmentek behera egin dute 2023an hiru lurralde historikoetan. Araban, 2022aren aldean jaitsiera %2,1ekoa izan da, Bizkaian %1,8koa eta, azkenik, Gipuzkoan %1,0koa.

Merkataritzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea

2023ko laugarren hiruhilekoko datuak soilik aztertuta, Merkataritzako sektoreko salmentak %1,8 jaitsi dira 2022ko laugarren hiruhilekoaren aldean, egutegiaren ondorioak atera ondoren eta prezio finkoetan. Aurreko hiruhilekoaren aldean, dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, salmentak %0,3 igo dira 2023ko laugarren hiruhilekoan.

Merkataritzaren barruan, salmenten urte arteko bilakaera positiboa izan da, bai *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan*, %10,2ko hazkundearekin, bai *Txikizkako merkataritzan*, non salmentak aurreko urteko azken hiruhilekoan baino %0,3 handiagoak izan diren. *Handizkako merkataritzaren* sektorean, aldiz, %5,2 txikiagoak izan dira 2022ko laugarren hiruhilekoan ikusitakoak baino, prezio konstanteetan eta egutegiaren ondorioak atera ondoren.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, salmentak igo egin dira bai *Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan*, bai *Txikizkako merkataritzan*, hiruhileko arteko %2,9ko eta %0,3ko hazkundeekin, hurrenez hurren. *Handizkako merkataritzaren* azpisektorean, aldiz, salmentak %0,4 jaitsi dira aurreko hiruhilekoaren aldean.

Euskal AEko merkataritzaren indizea. Behin-behineko datuak. 2023/IV

	Prezio finkoak		
	t/t-4	t/t-1	A(t)/A(t-4)
INDIZE OROKORRA	-1.8	0.3	-1.6
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	10,2	2,9	5,9
Handizkako merkataritza	-5,2	-0,4	-4,7
Txikizkako merkataritza	0,3	0,3	0,9
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	-2,1	0,1	-2,1
Bizkaia	-2,5	0,0	-1,8
Gipuzkoa	-0,3	0,7	-1,0
ENPLEGUA	1.5	0.5	1.3

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2024ko Otsailaren 15a

Iturria: Eustat. Merkataritzaren indizea

Hiru lurralde historikoetan salmentek emaitza negatiboak izan dituzte urte artean, prezio finkoetan. Bizkaian salmentak %2,5 jaitsi dira 2022ko laugarren hiruhilekoaren aldean, Araban %2,1 eta Gipuzkoan %0,3.

2023ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, ordea, salmentak egonkor mantendu dira Bizkaian, eta gora egin dute Gipuzkoan eta Araban, %0,7 eta %0,1, hurrenez hurren.

Euskal AEko merkataritza sektoreko enplegatuen indizea %1,5 gehitu da 2023ko laugarren hiruhilekoan, 2022ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean, hazkundera %0,5ekoa izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea **%96,1eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62